

ZUBITAKO IÑOTIK

Zubitan eta Itunetan, iñotik, libeltzaren azkeneko Igandin itten dire. Lau egun itten dire, hasitzen dire Igandin aztezen arte. Herriko gazteak biltzen dire herriko ostaturan, lehenengo mutillak bakarria orain, neskatxak ere bai eta han itten ttuzte jan ta edan mahikua eta juergak.

Egunero goizetik, atetzen dire puxkat biltzera, herri guztitik, atetzen dire joaldun pare bat kordionistekin, gazte batzuk eta joalduna joan da ithez-ithez joariak joaz, saski batekin eta kerrenean undaia eta xixorra sartzeko eta gauza hoiekin gosaria itten dute herriko ostaturan.

Astelehenin, joaten dire Itunera joaldunak, karrozak, mozorroak...

Asteartin etortzen dire Itundarrak bixita ordainduz, sartzen dire Zubitikan, lehendabizi joaldunak, ematten dute bira herri guztitik, herriko yakoak ikusteko iñotik derela eta horrela sartzen dire, aletzen dire plazara. Hor ematten ttuzte bira pilla bat. Azkeneko biran gizon batek banatzen ttu piper-opillak, joaldun bakoitxari piper-opil bat emanez. Piper-opillak, dire pasta handi batzuk eta itten dire, oso goxuak dire eta itten dire Zubitan bakarrik eta iñotetan. Gero, joaldunak herriko ostaturan sartzen dire eta hor hartzen ttuzte salda eta arraultze gogor bana. Horitxek dire ohiturak.

UL73AMA